



GETXO MODA

EDICIÓN 35 EDIZIOA

Antolatzailea:

Getxo  **Enpresa**

Babesleak:

 **Getxo**
hoy en día

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA

TURISMO, MERKATUETZA
ETA HORTZALAN SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Laguntzailea:

Bizkaia
2024

DISEINATZAILE BERRIEN LEHIAKETAREN 17. EDIZIOAREN OINARRIAK 35. GETXO MODA 2022

Getxo Enpresak GETXO MODA 2022ren 35. Edizioaren barruan Diseinatzaile Berrien Lehiaketaren 17. edizioa deitu du.

• HELBURUAK.

Gizon, emakume edo mistoen arropak edota osagarriak egiten dituzten moda-diseinatzaile berrien lana aurkitu, zabaldu eta bultzatzea.

• GAIAK ETA BILDUMAK.

Bildumaren Gaia librea da.
Diseinatzaile bakoitzak bilduma bat edo gehiago aurkeztu ahal izango ditu, eta bilduma bakoitzak gutxienez 5 look izango ditu.

• LEHIAKETAREN FASEAK.

1.Fasea: Txostenaren aurkezpena eta bildumaren porposamenak.

Txosten horiek aurkezteko azken eguna irailaren 27a izango da.

Brief-ak posta elektronikoz bidali beharko dira info@getxomoda.com helbidera, pdf formatuan, honako hauekin:

- Izena emateko fitxa beteta.
- Izena eta inspirazio-arrazoia - Moodboard
- Bildumaren deskribapena edo lerroak.
- Aurkeztu beharreko bildumaren 5 zirriborro.
- Produkzio-prozesuaren eta erabilitako materialen deskribapena.
- Gutxienez 3 look dituzten argazki bukatuak.
- Aurreko lanetako txostena.
- Egilearen CV
- BIO idatzia
- Epaimahaiarentzat garrantzitsua den beste edozein informazio

2.Fasea: Proposamenen aurrehautaketa.

Modaren munduan espezializatutako diseinuaren eta irudiaren arloko profesionalak egingo dute bildumarik onenen aurrehautaketa.

Baloratuko da:

- Proposamenaren kontzeptu orokorra.
- Sormena/Originaltasuna.
- Kalitatea eta akaberak.
- Bideragarritasuna.
- Produkzio-prozesua eta iraunkortasun-maila.

Hautatutako diseinatzaileak posta elektronikoz jakinaraziko dira, eta hurrengo fasera igaroko dira..

3.Fasea: Erakusketa.

6 bilduma onenak Getxo Moda 2022ren 35. edizioan aurkeztuko dira.

Diseinatzaile bakoitzaren 2 look aurkeztuko dira, urriaren 24ko astean Getxoko kaleetan ikusgai egongo diren instalazio abangoardista batean.

GETXO MODA

EDICIÓN 35 EDIZIOA

• SARIA BILDUMA ONENARENTZAT.

Erakusketaren azken egunean, moda, diseinu, irudi eta kultura arloan ospe handia duten profesionalek osatutako epaimahaiak bilduma onenaren alde bozkatuko du, lehen azaldutako irizpideari jarraituz. Getxo Modaren komunikazio-kanalen bidez jakinaraziko zaie, zuzenean, diseinatzaile finalistei.

Saria bilduma hori aurkezteko kanpainarako Argazki Produkzio batean datza.

Produkzio hau Asier Gómez Studiok egingo du. Irudiaren sormen-zerbitzuetan espezializatutako estudioa, honako hauek barne:

- Zuzendaritza artistikoa.
- Argazkigintza.
- Estilismoa.
- Makillajea eta ile-apainketa.
- Posprodukzioa.

Produkzio horren ondoriozko irudiak diseinatzaileari emango zaizkio, bere bilduma bere webgunean eta sare sozialetan zabaldu ahal izan dezan. Era berean, Getxo Modak bere komunikazio-kanaletan zabalitzen lagunduko du.

• IZENA EMATEKO ORRIA.

DISEINATZAILE BERRIEN LEHIAKETAREN 17. EDIZIOA – 35.
GETXO MODA 2022

- IZENA:
- ABIZENAK:
- HELBIDEA:
- POSTA-KODEA:
- E-MAIL:
- TELEFONOA:
- BILDUMAREN IZENA:

Antolatzailea:

Getxo  **Enpresa**

Babesleak:

 **Getxo**
by entis

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**
TURISMO, MERKATUTZA
ETA HORTIKO SAILA DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Laguntzailea:

 **Bizkaia**
2022

GETXO MODA

EDICIÓN 35 EDIZIOA

• PARTE-HARTZEAREN BALDINTZAK:

- Antolatzaileek lehiaketara aurkeztutako zirriborro eta bilduma guztiak izango dituzte GetxoModa 2022ren 35. edizioa amaitu arte, eta ekitaldia amaitzean 10 egun izango dituzte jaso ahal izateko.
- Hautatutako partehartzaileak beren bildumak fisikoki entregatuko dituzte 2022ko urriaren 18a baino lehen.
- Gutxieneko kalitatea betetzen ez duten bildumen parte-hartzea ez onartzeko eskubidea izango dute antolatzaileek.
- Zirriborroak eta bildumak bidaltzeko/itzultzeko gastuak lehiaketan parte hartzen dutenek ordainduko dituzte.
- Antolaketak ez du bere gain hartuko garraioaren, manipulazioaren edo antzekoen ondorioz materialek jaso ditzaketen kalteen gaineko erantzukizunik..
- Hautatutako bildumak erakusteko standard honetan egin beharko dira: 36/38 tailako emakumea eta 40/42 tailako gizona.
- Irabazle suertatzen den bildumaren diseinatzaileak onartu egiten du Getxo Enpresak, erakunde antolatzaileak, sariari zabalkundea ematea, eta prest egongo da elkarrizketak emateko eta komunikabideek eskatzen dituzten erreportaje guztiak egiteko, bai eta bilduma irabazlearen sustapenerako irudi-eskubideak erabiltzeko ere Getxo Moda 2022ren 35. edizioaren Diseinatzaile Berrien Lehiaketaren 17. edizioan.
- Lehiaketan parte hartzen dutenek antolakuntzari lagatzen dizkiote aurkeztutako diseinuak erabiltzeko eskubideak, eta edozein hedabidetan eta/edo erakusketatan argitaratu ahal izango dira, baita Getxo Moda 2022ren 35. edizioko ekintzetan ere.

Antolatzailea:

Getxo  **Enpresa**

Babesleak:

 **Getxo**
by entis

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**
TURISMO, MERKATUTZA
ETA HORTZLANI SAILA DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Laguntzailea:

 **Bizkaia**
2017

GETXO MODA

EDICIÓN 35 EDIZIOA

· Getxo 2022 modako 35. edizioko Diseinatzaile Berrien Lehiaketaren 17. edizioan parte hartzen dutenek baimena ematen dute beren datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteko Legearen indarreko legediaren esparru juridikoan tratatzeko, eta bermatzen dute emandako datuak egiazkoak, zehatzak, osoak eta egungoak direla, eta betebeharrak hori ez betetzearen ondorioz sor litezkeen kalte edo galera zuzen edo zeharkakoen erantzule direla.

Getxo Enpresak, entitate antolatzaile bezala, beretzat gordetzen du oinarri hauetan aurreikusi gabeko beste edozein gairi buruz erabakitze eskubidea.

2022ko Diseinatzaile Berrien 17. lehiaketari buruzko informazioa:

Posta elektronikoa: **info@getxomoda.com**

AITORPENA

NIK,-k, nire bilduma aurkezteko baldintzak irakurri ondoren, onartzen dut 35. Getxo Moda 2022 ekimenaren Diseinatzaile Berrien 17. lehiaketan parte hartzea, eta oinarri hauek onartzen ditut.

.....-n, rena

SINADURA:

Antolatzailea:

Getxo  **Enpresa**

Babesleak:

 **Getxo**
by entis

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**
TURISMO, MERKATUTZA
ETA HORTZLANI SAILA DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Laguntzailea:

 **Bizkaia**
2017